

tolosaldeagaratzen.eus



Tolosaldea
garatzen

Pobrezia energetikoa Tolosaldean.

Diagnosia eta
ekintza plana

ECOSERVEIS - MARTXOA 2022

EDUKIA

I.

Pag 3. SARRERA

01. Definizioa, zergatiak, ondorioak
02. Testuingurua

II.

Pag 9. METODOLOGIA

III.

Pag 11. DATUEN ANALISIA

01. Adierazle sozioekonomikoak
02. Etxebizitza adierazleak
03. Oinarrizko hornidurarekin lotutako adierazleak
04. Desberdintasunak pobrezia energetikoan

IV.

Pag 17. POBREZIA ENERGETIKOAREN KUDEAKETA


01. Gizarte zerbitzuak
02. Gurutze Gorria
03. Udaltzaina, Ertzaintza eta suhiltzaileak
04. Hirugarren sektoreko eragileak
05. Tolosaldea Garatzen
06. Ondorioak

V.

Pag 27. PROPOSATUTAKO EKINTZAK

01. Pobrezia energetikoaren kudeaketa energia bulego birtualean integratzea
02. Gizarte zerbitzuetako profesionalen formakuntza eta erabiltzei arreta
03. Identifikazio eta deribazio protokolak sortzea
04. Komunikazio eta sentsibilizazio kanpainak antolatzea
05. Pobrezia energetikoaren koordinazio sarea sortzea
06. Energia eta pobrezia energetikoaren sektoreko okupazio planak bultzatzea

I.
SARRERA



01. Definizioa, zergatiak eta ondorioak

DEFINIZIOA

Pobrezia energetikoaz aritzen garenean, etxeko beharrak asetzeko eta prezio duin batean oinarritzko zerbitzu energetikoak (argia, berokuntza, ur beroa, gasa edo sukaldatzeko argindarra; telefonía, internet, ibilgailuentzako erregaiak eta etxerako erabilera ez duen beste edozein energia kontsumoa ezik) jasotzeko zailtasun edo ezintasun egoera bati buruz hitzegiten ari gara (ACA, 2021).

Definizio horrek egoera pertsonala, diru sarrerek eta gabezia materialaren arteko erlazioan osasun egoera, etab. kontuan hartu behar ditu; baita etxebizitzaren behar energetikoak, kokapena, etxebizitza mota, isolamendua, ekipamenduak, azalera eta etxebizitzaren erabilera ere. (ACA, 2021)

ZERGATIAK

Egiturazko arazoa da pobrezia energetikoa eta faktore anitzak ditu. Europar Komisioko Vulnerable Consumers' Group-en arabera, zaurgarritasun energetikoa areagotu dezaketen lau faktoreak hauek dira:

Baldintza indibidualak

Etxeko pertsona nagusiaren ezaugarri gizademografikoak eta sozioekonomikoak (diru-sarrera baxua, langabezian egotea, familia ugaria edota gurasobakarrekua, pentsioduna izatea, etab.) pobrezia energetikoa sufritzeko arrisku faktoreak dira. Faktore horien artean ere osasuna eta adina kontuan hartzen dira, baita genero desberdintasuna edo etorkina izatea ere. Azkenik, ikasketa edo informatika gaietan ahulezia faltak informazioa eskuratzeko ekar dezaketen zailtasunak ere arrisku hori areagotu dezake. Zaurgarritasun energetiko hori, ordea, gutxitu daiteke elkar babeserako sarea izanez gero.

Merkatu badintzak

Merkatua ere faktore mugatzaile bat da energia kontsumoan. 2008tik gorantz egiten ari den energiaren prezioa eta energia merkatuaren lehiakortasuna zaurgarritasun energetikoaren errudun dira. Espainiar estatuan energia merkatuaren liberalizazioak eta honen funtzionatzeko modu marginalista eta ilunak ere gizatalde zaurgarrienak babes falta egoeran uzten dituzte.

Azkenik, fakturak ulertzeko zailtasuna, bezeroaren arreta falta eta salmenta jardunbide txarrak ere pobrezia egoera jasateko arriskuak areagotzen dituzte.

Ingurua

Testuinguru geografiko eta fisiko ere kontuan hartu beharreko faktoreak dira, tokiko mailan eta maila globalean ezartzen diren politikekin batera. Geografikoki, tokiko klima eta metereologia etxebizitzaren eskaera energetikoa erabat mugatuko dute. Gipuzkoaren kasuan, klima atlantiarra izanik, urte osoan euri ugariak bai baina tenperaturak ez dira muturrekoak izaten. Maila politikoan, estatu, erkidego eta tokiko politikek pobrezia energetikoa gutxitu dezakete etxebizitzaren eraikuntza edo birgaitzeetan irizpideak zehaztuz, energiaren prezioan erregulazio neurriak zehaztuz edota profesionalen eta herritargoaren zeharkako formakuntza sustatuz, besteak beste.

Etxebizitzaren baldintzak

Eraikin batek energia optimizatzeko eduki dezakeen gaitasunak bertan bizi direnen kontsumoa eta inpaktu ekonomikoan eragingo du. Eta zerk baldintzatzen du optimizazio hori? Erabilitako materialak, isolamentu termikoaren egoera, argindar sistemaren errendimendua eta kontsumo ohiturak.

Etxebizitzaren eraginkortasun energetikoa hobetzeak pobrezia energetikoa jasateko arriskua gutxitzen du, konfort-era iristeko energia gutxiago behar delako. Eta pobrezia mota honen egiturazko arrazoietakoa bat hori da; izan ere, etxebizitza asko eraginkortasun irizpideak barneratzen ez zituen legedia baino lehenago eraikiak dira. Hain zuzen, 2017ko Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren Inkestaren arabera, Gipuzkoako etxebizitzaren %61,3a 1979 baino lehenagokoak dira, irizpide horiek barneratu gabekoak.

ONDORIOAK

Egoera honek pertsonen osasunean, eraikinen egoeran eta ingurumenean eragina du. Horietako ondorio batzuk dira:

Osasunean ondorioak

Hotza modu iraunkorrean jasatzea edo eraikinen egoera txarra dela eta gerta daitezken beste egoerek osasun kalteak eragin ditzake bertan bizi direnei. **Munduko Osasun Erakundeak** "Eraikin Gaisoaren Sindromea" bezala definitzen du gaitza, eraikin baten egoera txarra dela eta bertako biztanleak jasaten duten min eta gaisotasun multzoa. Hotz denboraldi luzeak bihotz-, arnas- edo gaisotasun erreumatikoak sufritzeko arriskua areagotzen dute, neguko hildakoen kopurua handituz. Erosotasun termiko faltak eta horren dakartzan arazo ekonomikoak pertsonen osasun mentalean ondorioak ditu eta estres, antsietate eta depresio egoerak sortu ditzake.

Eraikinetan ondorioak

Eraikin batek hezetasunak eta infiltrazioak jasaten dituzenean, etxebizitza azkarrago hondatzen da eta horrek tenperatura duin bat mantentzea zailtzen du, ondorioz, eskaera energetikoa areagotuz.

Ingurumenean ondorioak

Etxebizitak eta bere instalazioak okertzen direnean eraginkortasun energetikoa gutxitzea dakar. Eta horrek energia kontsumoa handitzen du, ondorioz aldaketa klimatikoa bultzatuz.

02. Testuingurua

Ezaugarria fisiko, giza-demografiko eta giza-ekonomikoak

Tolosaldea, Gipuzkoan biztanle gutxien duen eskualdea da, 2021eko Eustateko datuen arabera, 49.543 biztanle, 33.200 hektarea eta 28 udalerrietan banatuta. Eskualdearen buru den herriak, Tolosak, 19.688 biztanleekin, eskualdeko biztanlegoaren gehiengoa hartzen du.

Biztanlegoaren %22,39k 65 urte edo gehiago du. Zerbitzuetan bereziki oinarritzen den eskualdea da (%76,1), biztanlegoaren %19,62ak goi-mailako ikasketak ditu eta %7,3ko langabezia. Urteko BPG 25.133 eurokoa da, 2018ko datuen arabera.

Pobrezia energetikoaren testuingurua

2008ko krisi ekonomikoaren eraginak Gipuzkoako biztanlegoaren susperraldi geldo bat suposatu zuen (SIIS, 2018). Gipuzkoako Pobrezia eta Gizabazterketaren 3. Inkestak gure ikerketa eremua baino eremu handiago hartzen duen arren, Tolosaldeko testuinguruari egokitu dakiok.

Inkesta honen arabera, 2008-2017 aldian etxebizitzaren diru-sarrerak gorantz egin zuten arren, gaur egun gehiago kostatzen zaie familiei energia fakturei aurre egitea, beraz, pobrezia maila mantendu egin da. Espainiak energiaren prezio altuek Gipuzkoako etxebizitza sektoreak kontsumo jaitsiera eta beroketa-sistemen eraginkortasun energetikoaren igoera ekarri zuten, baita aurrezpen sistemak ezartzea ere (SIIS, 2018).

Pobrezia energetikoa argazkia ezin da adierazle bakar batekin neurtu, izan ere dimentsioa asko eduki behar baitira kontutan. Arazo hau aztertzeke garaian,

Pobrezia Energetikorako Europako Behatokitik lau adierazle kontutan hartzeko gomendatzen dute:



Gehiegizko gastua

Aztergai den lurralde eremuko etxebizitzaren mediak duen gastua biderkatzen duen etxebizitza/pertsonen ehunekoa neurtzen du.



Ezohizko gastu baxua

Energian ezohizko gastu baxua duen etxebizitza/pertsonen ehunekoa neurtzen du, aztergai den lurralde eremuko etxebizitzaren mediak duen gastu energetiko totalaren erdia baino gutxiago duena.



Neguan etxea tenperatura egokian mantentzeko ezintasuna

Neguan etxea tenperatu egokian ezin duela mantendu adierazten duten kasuak identifikatzen dira.



Fakturen ordainketan atzerapenak

Azken 12 hilabetetan energia-fakturetan atzerapenak eduki dituzten etxebizitza/pertsonen ehunekoa neurtzen da.

Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat SIISek egindako txostenaren arabera (2021), energian gehiegizko gastua egiten dute etxebizitzaren ehunekoa igo egin da; 2018an %12,7 izatetik (85.858 pertsona) %15,1 izatera 2020an.

Ezohizko gastu baxuaren inguruan, ehunekoa paretsu mantendu da Gipuzkoan; 2018an %6,1k (438.751 pertsona) zuen ezohizko gastu baxua eta 2020an, %6,2k (48.386 pertsona). Azpimarratzekoa da etxebizitza horietako ehuneko garrantzitsu batek diru-sarrerara altuak dituela.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Pobrezia eta Gizarte-Ezberdintasunen Inkestaren (PGEI, 2020) arabera, Gipuzkoan neguan tenperatura egoki batean mantentzeko zailtasunak dituzten etxebizitza kopurua jeitsi egin da, %9,4 (60.832 pertsona) izatetik 2018an, %7,8 (59.756 pertsona) izatera 2020an. Espainian guztiz kontrakoa gertatu da, %9,6tik 2018an %11,1ra 2020an. Gipuzkoako datuaren (eta EAEn) jaitsieraren arrazoia izan daiteke 2020ko eguraldi baldintzak 2018ak baino hobek izan zirela.

Azkenik, ordainketen atzerapenaren inguruan, 2020an Gipuzkoako etxebizitzaren %3,1ak (27.900 pertsona) energia inguruko fakturak ordaintzeko atzerapenak eduki dituela onartzen du; 2018an %0,9k (7.398 pertsona) bakarrik.

Ezaugarri soziodemografikoak, maila sozioekonomikoa, etxebizitzaren osaketa eta eraikinen ezaugarriak pobrezia energetikoaren inguruko desberdintasunak sorrarazi dituzte. Pobrezia eta Gizarte Bazterkeriaren 3. Inkestaren arabera, pobrezia energetikoa jasatzeko zaugarritasun handiagoa duen perfila pertsona bakarreko eta diru-sarrera maila baxua duten etxebizitza da, non pertsona nagusiak 45 urtetik gora dituzten eta langabezia dagoen.

EKINTZAK ETA PROIEKTUAK

Azken urteetan, 2015etik gaur egun arte, Tolosaldea eta bere udalerriak jasagarritasunaren lotutako hainbat jardura eta proiektu garatu dituzte eta 2021 urtean Piztu Tolosaldea 2021-24 Tolosaldeko Energia Estrategia sortu dute. Plan honek, besteak beste, burujabetza energetikoa, komunitate energetikoen sorrera, etxebizitzaren birgaitzea eta kudeaketa integratua, aurrezpen Ekonomikoa eta elektromugikortasuna sustatu nahi ditu.


The image features a solid orange background with a white grid of thin lines. Various white geometric shapes are scattered across the grid: a triangle in the top-left corner, three horizontal bars in the upper-right quadrant, a circle in the middle-right, a semi-circle in the lower-right, and a triangle in the bottom-right corner.

II. METODOLOGIA

Tolosaldeko pobrezia energetikoaren egoera aztertzeko datu kuantitatibo eta kualitatiboak jasotze aldera hurrengo ekintzak garatu dira:

Elkarrizketa	Tolosaldea Garatzenekin elkarrizketa, lurraldea, zerbitzuak eta eskualdeko eragileak ezagutzeko.
Analisia	Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterkeriaren 3. Inkestako lurralde datuen analisia.
Inkesta	Gizarte zerbitzuekin inkestaren eta lurralde datuen analisiaren arteko konparaketa.
Saio partehartzailea	Gizarte zerbitzuekin pobrezia energetikoaren kudeaketa maila eta dituzten baliabideak eta tresnak ezagutzeko saio partehartzailea
Beste eragileekin saio partehartzailea	Eskualdeko beste eragileekin zerbitzuak eta elkarlanerako aukerak identifikatzeko saio partehartzailea.
Elkarrizketa	Tolosaldeko Gurutze Gorriarekin elkarrizketa martxan duen pobrezia energetikoko programa ezagutzeko.
Diagnosia	Diagnosia eta ekintzen proposamena
Balioztatze saioa	Parte hartu duten eragileekin azken balioztatze saioa.

III. DATUEN ANALISIA



Pobrezia energetikoaren eskualdeko argazkia izan ez arren, Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterkeriaren 3. Inkestako datuak ditugu eta Tolosaldeko eskualderako estrapolatu daitezke. Honakoak dira datuak:

01. Adierazle sozioekonomikoak

Etxebizitzetako pobrezia maila eta energia-fakturaren pisua

Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterkeriaren 3. Inkestaren arabera, Gipuzkoan, etxebizitzaren %16,4ak pobrezia erlatiboko arriskua dute eta %5,3k, pobrezia larria. Datu hauek Tolosaldea mailara ekarrita, 3160 etxebizitza dira pobrezia erlatiboa pairatzen dutenak eta 987 etxebizitza pobrezia larria.

Azken urteetan energia-fakturaren pisu erlatiboa, etxebizitzaren gastu totaletik gutxitu den arren, 2008an baino altuagoa izaten jarraitzen du, %2,5etik %3,3ra pasa baita (Eustat 2017). Gainera, etxebizitzaren beste gastuekin alderatuz, azken hamarkadan igora gehien eduki duen bigarren gastua izango litzateke. Izan ere Espainia da kilovatio/orduko prezioa garestien artean bosgarrena EB-28an eta gas naturalaren prezio garestiena duena (SIIS, 2018). Igoera hauek direla eta, 2008tik hona energia kontsumoa jaitsi da etxebizitzetan, zaugarritasun energetikoa bizitzeko arrisku handiagoa suposatuz.

02. Etxebizitza adierazleak

Eraikinen egoera eta eraginkortasun energetikoa

Energia prezioa igotzeaz gain, Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterkeriaren 3. Inkestaren arabera, gipuzkoarren %61,3% 1979 urtea baino lehenago eraikitako etxebizitzetan bizi da. Garai hartako eraikuntza arauak efizientzia eskakizun asko txikiagoak zituzten, lehen eraikuntzerako oinarizko araua (eraikinen baldintza termikoei buruz) NBE-CT-79 2429/1979 Errege Dekretuan publikatu baitzen.

Eta horrek suposatu dezake 2007an eraikitako etxebizitza batek baino 2,8 aldiz gehiago gastatu dezakeela berogailuan, EEEren (Euskadiko Energia Erakundea) arabera.

Gaur egun, Europar Batasuneko eraikinen eraginkortasun energetikoa sustatze aldera, araudi komunitarioak eraikinak ziurtagiri energetikoa edukitzera behartzen ditu eta estatu bakoitzari 235/2013 Errege dekretuaren arabera ziurtagiri horien kalitatea bermatzeko egjatzatze sistema independienteak ezartzera behartzen dio.

03. Oinarrizko hornidurarekin lotutako adierazleak

Prezioen ezagutza eta lotutako kostuak

Gero eta etxebizitza gehiagok berogailu sistema eraginkorrak dituzte (termostatoaren erabilera, bereziki) eta azken urtetan aurrezpen energetikoko neurriak ezarri dira etxebizitzetan (kontsumo baxuko bonbillak, etiketa energetikoa kontuan hartzea, leihoen aldaketa, ura aurrezteko gailuak, etab.). Ordea, energia aurrezteko dauden dirulaguntzen inguruko ezagutza okertu da 2014tik 2017ra (SIIS, 2018). Pobrezia eta Gizarte Bazterkeriaaren 3. Inkestako datuek azaleratzen du pobrezia erlatiboan bizi direnen eta pobrezia energetikoko tasa altuenak dituztenen artean oraindik ezagutza falta handiagoa dela. (%41,9).

Gabezia materialak

2020ko datuen arabera, Gipuzkoako etxebizitzaren %7,8k onartu du ezin zuela bere etxebizitza tenperatu egokian mantendu (20°C). Ur, gas, berokuntza eta argindarraren fakturak ordaintzeko garaian, etxebizitzaren %3,1k atzerapenak eduki dituzte onartu dute (SIIS, 2018). Diru-sarreraren arabera energian gehiegizko gastua egiten du etxebizitzaren %15,1ak eta ezohizko gastu baxua %6,2k.

Datu horien arabera, lurraldeko familien % 21,5 inguru energia-pobreziaiko egoeran dago. Aurreko ehunekoa eskualde-eskalara estrapolatuz gero, aldiz, pobrezia energetikoko egoeran dauden etxeen kopurua 4.148koa da guztira (SIIS, 2018).

04. Pobrezia energetikoan desberdintasunak

Gipuzkoako datu horiek herritargoaren artean dauden desberdintasunak azaleratzen dituzte. Eta ondorioz, zaugarritasun energetikoa hitzegiteak duen arriskua ikusten da.

Lehenik eta behin, pertsonaren lan-egoera azpimarratzen da; izan ere, langabezian dagoen pertsona batek 12,3 aldiz aukera gehiago du pobrezia energetikoa pairatzeko. (SIIS, 2018). Tolosaldeko langabezia datuak kontuan hartuta, 3.184,65 pertsona izango lirateke.

Etxebizitzaren jabe ez izatea da beste arrisku faktorea; 5,12 aldiz aukera gehiago dute pobrezia energetikoa pairatzeko jabe ez direnak (SIIS, 2018).

Etorkinak dira, pobrezia mota hau sufritzeko arriskua duen hurrengo gizataldea; 5 aldiz aukera gehiago dute (SIIS, 2018). Eskualdean %10,57 dira etorkinak, 2.081 pertsona, hain zuzen.

Familia gurasobakarrak, bestalde, 4 aldiz aukera gehiago dute pobrezia energetikoa sufritzeko (SIIS, 2018). Gipuzkoan 24.000 familia gurasobakarrak dira INEren arabera (2020) eta Tolosaldera ekarrita, 1.400 familia.

Emakume izatea da bosgarren arrisku faktorea; 2,6 aukera gehiago dute pobrezia mota hau pairatzeko (SIIS, 2018). Tolosan 718tik 367 emakume izango lirateke, herritarren erdia baino gehiago, hain zuzen.

Gizarte zerbitzuetatik jasotako datuen arabera, 2021ean Tolosaldeko udalerrietan pobrezia energetikoarekin arazoa izan dituzten familiak:

Tabla 1. Ecoserveis, 2021

Udala, biztanleria, familia etxebizitzak, pobrezia energetikoa sufritzeko familia kopurua, orokorrean artatutako familia kopurua eta pobrezia energetikoa sufritzeko arriskua duten artatutako familia kopurua Tolosaldean.

ECOSERVEIS, 2021.

Udalerria	Biztanleria	Etxebizitzak	PE Arriskua	Artatutako etxebizitzak*	%
Abaltzisketa	285,00	111,00	13,17	2	15%
Aduna	352,00	171,00	16,27	-	-
Albiztur	298,00	110,00	13,78	3,5	25%
Alegia	1646,00	703,00	76,09	11,66	15%
Alkiza	301,00	132,00	13,91	-	-
Altzo	359,00	162,00	16,59	11,66	70%
Amezketza	969,00	355,00	44,79	2	4%
Anoeta	1784,00	826,00	82,47	16	19%
Asteasu	1394,00	559,00	64,44	-	-
Baliarrain	98,00	51,00	4,53	2	44%
Belauntza	289,00	100,00	13,36	2	15%
Berastegi	1003,00	408,00	46,36	2	4%
Berrobi	562,00	229,00	25,98	10	38%
Bidegoian	461,00	186,00	21,31	3,5	16%
Elduain	212,00	92,00	9,80	0	0%
Gaztelu	151,00	57,00	6,98	5	72%
Hernalde	326,00	110,00	15,07	1,5	10%
Ibarra	4.305,00	1.710,00	199,00	-	-
Ikaztegieta	394,00	160,00	18,21	11,66	64%
Irura	1.112,00	704,00	51,40	1,5	3%
Larraul	177,00	82,00	8,18	-	-
Leaburu	369,00	145,00	17,06	5	29%
Legorreta	1.375,00	567,00	63,56	-	0%
Lizartza	614,00	241,00	28,38	-	-
Orendain	165,00	76,00	7,63	2	26%
Orexa	89,00	43,00	4,11	5	122%
Tolosa	17.830,00	8.184,00	824,19	65	8%
Villabona-Amasa	5.747,00	2.337,00	265,66	23	9%
Zizurkil	2.828,00	1.141,00	130,72	16	12%
Total	42.669,83	19.752,00	1.972	202	10%

*

Gizarte zerbitzuek emandako datuak dira eta artatutako etxebizitzak udalerriak multzokatu dira. Eta kasu horietan artatuko etxebizitza kopurua taldekatutako udalerriean artean zatitua da, balore hurbildua izateko. Multzokatutako udalerriak izan dira:

- Alegia, Altzo eta Ikaztegieta, guztira 35 familia.
- Hernialde eta Irura, 3 familia.
- Albiztur eta Bidegoian, 7 familia.
- Abaltzisketa, Amezketeta, Baliarain eta Orendain, guztira 10 familia.
- Gaztelu, Belauntza, Leaburu eta Oresa, 15 familia.

The background is a solid orange color. A white grid of lines is overlaid on it. In the top-left corner, there is a white right-angled triangle. In the middle-right area, there are three horizontal white bars stacked vertically. Below these bars is a white circle. Further down is a white semi-circle. In the bottom-right corner, there is another white right-angled triangle.

IV. POBREZIA ENERGETIKOAREN KUDEAKETA

Inkesta eta on-line saio partehartzaileen bitartez Tolosaldean gizarte zerbitzuak pobrezia energetikoko egoerei aurre egiteko emandako erantzunaren analisia egin dugu. Analisis honek zerbitzuaren mugak eta praktika onak ezagutzeko aukera eman digu, egungo beharrak hobeto ulertu, aukera berriak ezagutu eta jarduera protokolo bat sortzeko.

01. Gizarte Zerbitzuak

Tolosaldeko Gizarte zerbitzuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren barne daude. Pobrezia energetikoko proiektuak aurrera eramateko ardura Gizarte zerbitzuek dute eta horregatik, beraiek dira identifikatzaile eta kudeaketa nagusiak. Ikertzen ari garen gaiaren inguruko egoera ezagutzeko, gizarte langileekin inkestak eta on-line saio partehartzaileak egin ditugu, gaur egun egiten duten kudeaketa ezagutzeko, beharrak ulertu eta hobekuntza proposamenak egiteko.

Gaur egungo prozedurak

Identifikazioa

Pobrezia energetikoko egoerak Gizarte zerbitzuetara zuzenean etortzen diren pertsonen bitartez ezagutzen dira, fakturak ezin ordaindu eta hornidura mozketak izan dituztelako. Tolosa eta Villabonako kasuetan familia kasu errepikakorrek ikusi dira. Tolosako kasuan, on-line saio partehartzaileetan jaso dan bezala, faktura horiek askotan oso altuak izaten dira. Hirugarren adineko pertsonen kasuan kontsumo kontrol handiagoa somatzen da eta sarri ezohizko faktura baxuak agertzen dira.


Tolosaldean 2020 familia artatzen dira urtero pobrezia energetikoko arazoekin. Eta horietako 66 gizarte zerbitzuetako hornidu mozketak direla eta iristen dira. Udalerriko datuak ikusita (Fig1) azaleratzen da pobrezia energetikoko egoera bat pairatzeko arriskua duen artatuko familia kopurua oso baxua dela (%13). Zehaztu beharra dago Tolosaldean pobrezia energetikoko egoera bat paraitzeko arriskua izan dezaketen familia kopuruaren estimazioa Gipuzkoan 2017an egindako Pobrezia eta Gizarte Bazterkeriaren 3. Inkestaren extrapolazioa bat dela. Etxebizitza kopuruaren arabera kalkulatu da datu hori eta ariketa berdina egin da 2021ean Eustateko datuekin.

Figura 1

Tolosaldean pobrezia energetikoa sufritzeko arriskua duten familia kopuruarekiko Gizarte zerbitzuen atentzia islatzen duen grafikoa. Ecoserveis, 2021.

ECOSERVEIS, 2021.

Tolosaldean pobrezia energetikoa sufritzeko arriskua duten familia kopuruarekiko gizarte zerbitzuen atentzia



Kudeaketa

Behin familiak identifikatuta, kudeaketa prozedura hasten da. Erantzundako inkesten arabera, kasu guztietan faktura ordaintzeko laguntza ematen da eta udalerrien %59an, beste zerbitzu batzuetara bideratzen da. Dirulaguntzak ematen dituen kanpo zerbitzu bakarra aurkitu da, Gurutze Gorria, inkesta erantzun duten 22 udalerrietatik 15etan.

Urtean 152 dirulaguntza eman dira, energia eta ur homidurako fakturak ordaintzeko eta 63.694 euroko kostua izan dute. Laguntza honekin batera, bono soziala eskatzeko informazioa eta laguntza eman zaio (Tolosak dio laguntza hau kudeatzeko bulego berria duela) eta bi udalerrian potentzia jaisteko kontratu aldaketa prozeduran aholkularitza eman dute. Inkestako 22 udalerrietik 15ek fakturak ordaintzeko arazoak dituzten familiak laguntza bat baino gehiago jaso dutela.

Villabonako udalak dio, gizarte arloko laguntzez gain, erabiltzaileak ur homidurako eta bestelako fakturak ordaintzeko laguntzak dituztela eta behin Iberdrolako bono sozialera bideratu ondoren, ez dutela laguntza gehiago eskatu.

Tokiko gizarte zerbitzuen %87ak bono soziala eskatzeko baldintza berezien inguruko ziurtagiria egiten dituzte baina %oinarrizko homidurako mozketak ekiditzeko zaurgarritasun txostenak %50ak bakarrik egiten ditu. Txosten horiek, 897/2017 urriak 7ko Errege deketuan oinarritzen dira non kontsumitzaile

zaugarria, bono soziala eta energia elektrikoa kontsumitzen duten familiei zuzendutako bestelako babes neurriak erregulatzen diren. 16 udalerrik Gizarte bazterkeria sufritzeko arriskuko kasuetan fakturaren %50 ordaintzen da eta 3, fakturaren kostuaren arabera.

Pobrezia energetikoaren aurkako proiektu, programa edo zerbitzuak 6 udaletan bakarrik garatu dira; 3 udaletan informazio saioak eta eguzki plakak beste 3 udaletan. Udal bakar batean egin dute pobrezia energetikoa ekiditzeko informazio kanpaina bat eta 6 udaletan gizarte zerbitzuak eta Gurutze Gorriak elkarkidetzan dihardutela azaldu dute.

Inongo kasuetan, Gizarte zerbitzuetako profesionalak ez dute energia edo pobrezia energetikoko formazio zehatzik jaso.

Gaur egungo prozedurak

Premiak eta hobetzeko proposamenak

On-line inkesta eta saio parte-hartzaileen bidez, gizarte-zerbitzuek dituzten zenbait behar adierazi dira.

Fakturen ordainketa da, pobrezia energetikoko egoerak artatzen direnean, udaletan hartzen den neurri nagusia denez, baino argi dago hori ez dela nahikoa. Eta kasu horiek kudeatzeko eta gero eta eskaria handiagoari erantzuteko, baliabide ekonomikoen falta da zailtasun nagusia.

Erakundeen arteko koordinaziorik eza ere aldarikatzen da problematika hori zeharka lantzeko, baita, energiaren sektorean espezialistak ez direnez, energia-pobrezia kudeaketa hori egiteko espezializatuagoak diren beste eragile batzuk ezartzea ere.

Bestalde, antzematen da ere profesionalen prestakuntza falta pobrezia mota horretan eta energiaren arloan, kalitate handiagoko asistentzia emateko eta kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen aholkuak eman ahal izateko. Erabiltzaileei eta herritar guztiei energiaren kontsumo arduratsuari buruzko prestakuntza emateko beharra adierazten da, kontsumoaren kontzientzia areagotzeko, fakturak murizteko eta energiaren erabilera eraginkorragoa eta iraunkorragoa egiteko. Hori dela eta, pobrezia energetikoari buruzko prestakuntza ematea proposatzen da, bai profesionalen, bai herritarren, bai erabiltzaileen, oro har. Adierazitako guztiagatik, eremu horretan kontrol orokorrik ezaren sententzia sumatzen da, baita espezializaziorik ezaren sententzia ere. Gizarte-zerbitzuek kudeatu beharreko kasuen bolumen handiagatik eta denbora eta baliabide faltagatik, uste da ez dela iristen pobrezia energetikoa pairatzen duten herritar guztiengana, eta iristen denak ezin duela laguntza osoa jaso arazoa epe luzera konpontzeko.

02. Gurutze Gorria

Egungo prozedurak

Gurutze Gorria hirugarren sektoreko erakundea da eta duela 5 urte Eusko Jaurlaritzarekin modu aktiboan lan egiten du lurraldeko pobrezia energetikoa duten kasuei laguntzeko.

Identifikazioa

Udalekin lankidetzan aritzen da, eta udalek erakunde horretara bideratzen dituzte kasuetako batzuk. Tolosako Gurutze Gorriarekin izandako elkarriketa baten bidez, erakunde horrek eskualdean egindako zerbitzuak identifikatu ahal izan dira.

Kudeaketa

Gurutze Gorriak argi-, gas- eta ur-zerbitzuen fakturak ordaintzen laguntzen du. 2021ean 44 familia artatu dira guztira, eta urteko aurrekontua 240 €-koa izan da familia bakoitzeko, eta 8.354,85 €-koa fakturretarako. Aurrekontu hori Gipuzkoa osorako funts ekonomiko baten barruan dago. Funts hori udalerrri bakoitzaren beharren arabera gastatzen da, amaitu arte.

Biztanle gehien dituen udalerria izan arren, Tolosak oso kasu gutxi bideratzen ditu, Alegiarekin kontrastatuz, 16.184 biztanle gutxiagorekin, askoz gehiago bideratzen baititu. Baliteke datu horrek eskualdeko energia-pobrezia kasu guztietara ez iristea iradokitzea.

Jasotako bideratze guztiak gízarte-zerbitzuen eskutik jaso dira. Horiek lehen elkarriketa egin ondoren, familiari ematen zaio arreta, eta bonu soziala ez badute, gízarte-zerbitzuetara bideratzen dira, egin dezaten.

Artatutako pertsonen profilari dagokionez, 2021ean, % 75 31 eta 50 urte bitarteko pertsonak osatzen dute, eta erabiltzaileen % 61 emakumeak dira. Aurten jatorri espainiarreko 10 familia egon dira, eta gainerako nazionalitateak. Kasuen erdietan, laguntzak aurreko urteetako familia errepikarientzako dira, baina gainerako kasuetan laguntza hori puntualki eskatu da.

Neurri zuzentzaileez gain, fakturak ordaintzeaz gain, prebentzio-neurriak ere egiten dira. 2021ean, energia-pobrezia buruzko on-line tailerrak egin dira erabiltzaileentzat, Naturgy Fundazioak emanda. Bertan, gízarte-bonuari, energia-merkatuari, energia motei eta energia aurrezteko ohiturei buruzko prestakuntza eman da.

Premiak eta hobetzeko proposamenak

Kasu askotan, gizarte-zerbitzuetarako izapideak eta haien eskubide energetikoei buruzko informazioa jasotzeko garaian, hizkuntzaren oztopoarekin egin du topo. Horren ondorioz, pertsona horiek zaugarritasun arrisku handiagoa dute, prezio-igoerak eta beste konpainia elektrikoaren abusuak pairatzeko, erabakia hartzeko informazioa falta dutelako. Horregatik proposatzen da itzulpen-zerbitzua eta prozesuan laguntza zerbitzua, hobeto ulertu ahal izateko jasotako informazioa eta erabaki hartzeko.

Era berean, azpimarratzen dute behin baino gehiagotan gizarte-zerbitzuak Gurutze Gorriari bideratzen dizkiotela familiak, gizarte-bonurik izan gabe. Kasu horietan, proposatzen da, bono sozialaren tramitazioa egitea deribatu aurretik, familiei ematen zaien laguntza arintzeko. Azkenik, ikusi da kasu gehienetan arreta ematen diete pobrezia energetikoaren kasuei gizarte-zerbitzuetatik jakintzagai honi buruzko prestakuntza espezifikoa, fakturak irakurtzeko prestakuntza barme.

Hala ere, kontratatutako potentzia eta neurritz gairako kontsumoak aztertzen dira, parametro horiek behar den kontsumora egokitzeko eta, horrela, fakturaren kostua murrizteko. Aholkularitza-zerbitzua hobetzeko, gizarte-zerbitzuetako langileei pobrezia energetikoari buruzko prestakuntza ematea proposatzen da.

03. Udaltzaingoa, Ertzaintza eta Suhiltzaileak

Tolosaldeko segurtasun kidegoak egunero topatzen dira gizarte zerbitzuek edo hirugarren sektoreko eragileek artatzen ez dituzten pobrezia edo zaugarritasun egoerekin. Honexegatik, pobrezia energetikoko kasuen identifikaziorako eragile garrantzitsuak dira.

Gaur egungo prozedura

Gaur egun, Udaltzaingoa bakarrik ditu egoera prekarioak detektatzeko protokoloak. Hala ere, ez dago prozedura zehatzik pobrezia energetikoko egoerak identifikatzeko.

Ertzaintzaren eta Suhiltzaileen kasuan, ez dago detekzio-protokolorik, batez ere etxebizitza batean jarduketa bat egiten denean udaltzaingoa bertan egoten

delako eta, behar izanez gero, protokoloak aktibatzen dituztelako.

Premiak eta hobetzeko proposamenak

Saioetan parte hartu duten segurtasun-kidegoetako ordezkariak elkarlanean aritzeko sarean lan egiteko konpromisoa hartu dute, baina adierazi dute horretarako batetik detekzio-protokolo bat egon behar dela, identifikatu beharreko irizpideekin eta bestetik, deribazio-protokolo bat, kasuak nora eta nola bideratu jakiteko.

04. Hirugarren sektoreko eragileak

Hirugarren sektoreko erakundeak ere funtsezko eragile gisa identifikatu dira, kalteberatasun-egoeran dauden eta, beraz, energia-pobrezia egoerak pairatzeko arrisku handiena duten pertsonekin lan egitea baita erakunde horien izaera. Saio parte-hartzailean Peñascal Fundazioko eta Zutani eta Jatorkin elkarteetako ordezkariak izan ziren.

Gaur egungo prozedurak

Erakunde batzuek adierazi dute dagoeneko badituztela kalteberatasun- eta pobrezia-egoerak detektatzeko eta gizarte-zerbitzuetara bideratzeko protokoloak, baina protokolo horiek ez dira inola ere espezifikoak pobrezia energetikoan. Beste erakunde batzuek ez dute koordinazio-mekanismoak gizarte-zerbitzuekin.

Kasu batzuetan, arreta jasotzen duten pertsonen beharra eta arazo horretan baliabiderik eza dela-eta, elkarteek eurek aholkularitza indibidualizatua eman dute fakturen arloan. Arlo horretako oinarritzko ezagutzekin egin dira, ez baita prestakuntza espezializaturik jaso, Goiener kooperatibaren Power Poor programaren prestakuntzan parte hartu zen kasu batean izan ezik.

Premiak eta hobetzeko proposamenak

Erakundeek baliabide ekonomiko gehiago eta laguntza espezifiko gehiago eskatzen dituzte pobrezia energetikoari aurre egiteko, batez ere neguko aldietan, fakturak garestiagoak direnean eta behar energetiko gehiago daudenean.

Bestalde, prest agertu dira gízarte-zerbitzuekin eta beste zerbitzu eta erakunde batzuekin koordinatuta lan egiteko, eskualdean pobrezia energetikoa tratatzeko. Segurtasun-kidegoen kasuan bezala, erakundeek kalteberatasun energetikoko kasuak detektatzeko eta agente espezializatuarengana bideratzeko protokolo bat eskatzen dute.

Aurrekoaz gain, herritarrentzako sentsibilizazio-kanpainen antolaketan eta hedapenean parte hartzeko konpromisoa hartzen dute, dela jardunaldi formatuan, dela triptiko edo on-line bidezko informazio-kanpainen formatuan, eta abar.

05. Tolosaldea Garatzen

Azkenik, inguruko eragileen saioan Tolosaldea Garatzen-ek ere parte hartu zuen.

Gaur egungo prozedurak

2021ean Tolosaldea Garatzen-ek energia-planean pobrezia sartu du ildo estrategiko gisa. Esparru horren barruan, baliabide ekonomikoak jarri dira, arazo hori arintzeko diagnostiko-prozesu bat hasteko eta zerbitzuak sortzeko.

Bestalde, energia-bulegoa ere sortu da, eskatzen duten herritarrei energia-aholkularitza eskaintzeko zerbitzua.

Premiak eta hobetzeko proposamenak

Bestalde, adierazi dute beharrezkoa dela inguruko eragile guztiak pobrezia energetikoan inplikatzeko, zeharkako arazoa delako eta, beraz, ezin delako soilik gízarte-zerbitzuetatik tratatu.

Gainera, konpromisoa hartzen dute haiekin koordinatuta lan egiteko eta pobrezia energetikoaren kasuak detektatzeko eta bideratzeko protokoloetarako logístika sortzeko. Herritarrak komunikatzeko eta sentsibilizatzeko kanpainen sustatzaile posibleak ere badira.

Azkenik, Tolosaldea Garatzenek konpromisoa hartu du 2022an energia-pobrezia-aren problematikari aurre egiteko programak baliabide ekonomikoz homitzen jarraitzeko.

06. Ondorioak

Energía-pobrezia arintzeari bi lan-arlotatik heldu behar zaio: identifikazioa eta kudeaketa.

Kalteberatasun-kasuak identifikatzeari dagokionez, diagnostiko-prozesuan parte hartzen duten eragile guztien aurretiko jarrera handia hauteman da. Kasu guztietan, esparru horretan lan egiteko prest daude, baina bi protokolo sortzeko beharra sortu da: bata identifikazio-parametroekin (bai etxeetara egindako bisitetan, bai elkarrizketa pertsonalekin), eta bestea bideratze-prozesuarekin.

Kudeaketaren kasuan, gízarte-zerbitzuek eta Gurutze Gorriak bakarrik egiten dute lan arlo horretan. Gízarte-zerbitzuak arduratzen dira kasuak hautemateaz, laguntza ekonomikoak emateaz eta hornidura-mozketak saihesteaz. Kasu batzuetan, gízarte-bonuaren eskabidearekin batera aurkezten da. Gurutze Gorriak familientzako laguntza ekonomikoen programa bat du, eta, gainera, Naturgy Fundazioaren laguntza du, erabiltzaileekin fakturen eta eraginkortasun energetikoaren tailerrak ematen dituen.

Erabiltzaileei ematen zaien arreta, funtsean, laguntza ekonomikoaren formatuan egiten denez, espezializazio handiagoa behar dela ikusi da, eta etxeei fakturak optimizatzeko eta etxebizitzan eraginkortasun energetikoa izateko aholkularitza eskaini behar zaiela. Beraz, prestakuntza handiagoa behar da gaur egun pobrezia energetikoa kudeatzen duten eragileentzat, eta aukera ematen da eremu horretan zerbitzu espezializatu bat sortzeko.

Dado que la atención a las personas usuarias es básicamente en formato de ayuda económica se ha detectado la necesidad de más especialización y de ofrecer a los hogares asesoramiento en la optimización de facturas y de eficiencia energética en la vivienda. Se precisa, pues, más formación para los agentes que gestionan actualmente la pobreza energética y se abre la posibilidad a crear un servicio especializado en este ámbito.



VI.
PROPOSATUTAKO
EKINTZAK

Tolosaldeko energia-pobreziaaren diagnostikoaren emaitzekin, ekintza sorta bat planteatzen da. Ekintza horiek hurrengo taulan laburbiltzen dira, lehentasun-mailaren arabera ordenatuta, eta hurrengo ataletan zehazten dira:

Ekintza

Energia-pobreziaaren kudeaketa energia-bulego birtualean txertatzea

Gizarte-zerbitzuetako profesiozko lantzaileentzako prestakuntza eta erabilzaileei arreta

Identifikatzeko eta bideratzeko protokoloak sortzea

Komunikazioa eta sentsibilizazio kanpainak egitea

Pobrezia energetikoaren koordinazio sarea sortzea

Energia sektorearen eta energia pobreziaaren sektorean okupazio-planak bultzatzea

Inplikaturako agenteak

Tolosaldea Garatzen, gizarte zerbitzuak, gizarte erakundeak, larrialdi zerbitzuak

Tolosaldea Garatzen, Gizarte zerbitzuak, Etxez etxeko arreta zerbitzua, enpresa espezializatuak

Tolosaldea Garatzen, Gizarte zerbitzuak, Gizarte erakundeak, larrialdi zerbitzuak, Lehen Mailako arreta zentroak, ikastetxeak

Tolosaldea Garatzen, Gizarte-zerbitzuak, Gizarte erakundeak, larrialdi zerbitzuak, Lehen Mailako arreta zentroak, ikastetxeak

Tolosaldea Garatzen, Gizarte-zerbitzuak, Gizarte erakundeak, larrialdi zerbitzuak, Lehen Mailako arreta zentroak, ikastetxeak

Tolosaldea Garatzen

Kostua

100 - 300€
artatutako pertsonako

800 - 2.000€ / formakuntza

Ez-ohiko gainkosturik gabe

250 - 400€ / tailerra
3.000 - 6.000€ / kanpaina

Ez-ohiko gainkosturik gabe

15.000 - 30.000€

01. **Pobrezia energetikoaren kudeaketa energia bulegoan integratzea**

Aktore liderra

Tolosaldea Garatzen

Inplikaturako eragileak

Gizarte-zerbitzuak, gízarte erakundeak, larrialdi-zerbitzuak

Deskribapena

Tolosaldea Garatzen-ek herritarrentzako energia-aholkularitzarako bulego bat duenez, baliabide hori eskualdean energia-pobrezia arintzeko baliatzea proposatzen da.

Proposamenaren helburu nagusia urrakortasuneko eta/edo pobrezia energetikoko egoeran dauden pertsona guztiei aholkularitza indibidualizatua eta espezializatua ematea da. Gainera, behar adina baliabide emanaz gero, pobrezia energetikoaren aurkako borrokarekin lotutako edozein zerbitzu edo jardueraren erakunde koordinatzaile ere bihur daiteke bulegoa.

Erabiltzaileei behar bezala erantzun ahal izateko, alde batetik, bulegoak gaur egun dituen giza baliabideak gehitzea proposatzen da, herritarren aholkularitza-eskaera guztiak xurgatu ezin izatea saihestuz, eta, bestetik, aurrez aurreko espazio bat sortzea hala eskatzen duten energia-pobreziaren kasuetarako, kalteberatasun-egoeran dauden kolektibo askori eragiten dien eten digitala saihestuz. Aurrez aurreko arretarako espazio fisiko hori ondo komunikatuta egon behar da garraio publikoarekin eta kalean bertan kokatuta, herritarren irisgarritasuna errazteko, desberdintasunak saihestuz.

Bulego horrek, herritarrei zuzenean irekita egoteaz gain, erabiltzaileari arreta emateko beste zerbitzu batzuetatik edo egoera ahulean dauden pertsonen kasuak identifika ditzaketen eskualdeko beste erakunde batzuetatik bideratzeko protokoloak izan beharko ditu.

Energia-aholkularitzako bulegoak gero eta ohikoagoak dira Espainiako eta

Europako udalerri askotan, eta energia-pobreziaren aurkako borrokarako jardunbide egokitzat hartu dira. Zerbitzu honi buruzko informazio gehiago kontsulta daiteke EPAH Atlasen.

Kostua

100 - 300€ / persona atendida

02. **Gizarte zerbitzuetako eta erabiltzaileentzako arretako profesionalentzako prestakuntza**

Aktore liderra

Tolosaldea Garatzen

Inplikaturako eragileak

Gizarte Zerbitzuak, Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua (ELZ), enpresa espezializatuak.

Deskribapena

Pobrezia energetikoa fenomeno konplexua eta dimentsio anitzekoa den arren, tradizionalki gizarte-zerbitzuetan landu izan da, eta, horregatik, ikuspegiak ez ditu beste ezagutza-arlo batzuk kontuan hartzen. Gizarte-zerbitzuetako profesionalak eta erabiltzaileei arreta emateko beste profesional batzuei kalteberatasun energetikoko kasuen kudeaketarekin lotutako tresna eta baliabide berriak emateko, pobrezia energetikoari buruzko prestakuntza ematea proposatzen da.

Hala, erabiltzaileei energia espezializatutako aholkularitzan prestakuntza ematea proposatzen da, eta kasuak zeharka tratatu ahal izatea, energia-bulego birtualak zeregin hori bere gain hartu ez duen bitartean. Hala ere, legearen arabera, homidura-mozketak etetearekin zerikusia duten prozedura guztiak udaletako gizarte-zerbitzuei dagozkie. Horregatik, pobrezia energetikoa arautzen duen egungo lege-esparruan profesionalak prestatzea ere proposatzen da, bai

eta zerbitzu publiko horren mende zuzenean dauden prozedurak zein diren ere.

Ahal dela, prestakuntza aurrez aurrekoa izatea gomendatzen da, gízarte-zerbitzuen koordinaziorako sortutako espazioetan integratua, asistentzia errazteko. 1-2 orduko kapsulak proposatzen dira, aldian-aldian egin daitezkeenak.

Kostua

800 – 2.000 €/ prestakuntza

03. Identifikatzeko eta bideratzeko protokoloak sortzea

Aktore liderra

Tolosaldea Garatzen

Inplikaturako eragileak

Gizarte zerbitzuak, gízarte erakundeak, larrialdi zerbitzuak, Lehen Mailako arreta zentroak, ikastetxeak

Deskribapena**Identifikatzeko protokoloak**

Tolosaldeko zerbitzu eta erakundeek energia-pobrezia kasuak detektatzen parte hartu ahal izateko, beharrezkoa da kasu horiek identifikatzeko protokolo bat ezartzea. Protokolo horrek erraza izan behar du, eta jarraibide argiak izan behar ditu, herritarrekin harremana duen edozein profesionalak erraz eskura dezan.

Identifikazio-mekanismoak izatea proposatzen da, bai ikusmenaren bidez (adibidez, polizia edo suhiltzaileek esku hartzen dutenean), bai ahoz (elkarrizketa bat egiten denean edo elkarrizketa bat ematen denean, adibidez, hirugarren sektoreko erakunde batek elkarrizketa bat egiten duenean beste arrazoi batzuegatik edo pertsona bat herritarren arretarako bulegoren batera zuzentzen denean zalantzaren batekin).

Aipatu behar da gizarte-zerbitzuak oraindik ere estigmatizatuta daudela kalteberatasun-egoeran dauden herritarren aldetik, eta energia-pobrezia kasuak identifikatzeko beste zerbitzu eta profesional batzuen inplikazioa behar dela.

Bideratzeko protokoloa

Pobrezia energetikoko egoera bat identifikatu ondoren, ezinbestekoa da kudeaketaren ardura izango duen beste zerbitzu bat egotea. Lehen proposatu den bezala, energia-bulego birtualak har lezake zeregin hori, nahiz eta garatu ez den bitartean gizarte-zerbitzuek enkargatzea proposatzen den.

Kasuak bideratuko diren azken zerbitzua edozein dela ere, bideratze-protokolo bat sortu behar da, pobrezia energetikoko egoeran dagoen pertsonaren edo familiaren arreta eta aholkularitza espezializatua errazteko eta kasuak galtzea saihesteko, administrazioaren zerbitzuen artean bideratuz. Protokolo horretan sartu behar da, halaber, erabiliko den komunikazio-kanala, inplikaturako agente guztien artean adostutakoa.

Kostua

Lotutako aparteko gainkosturik gabe.

04. Komunikazioa eta sentsibilizazio kanpainak egitea

Aktore liderra

Tolosaldea Garatzen

Inplikaturako eragileak

Gizarte zerbitzuak, Gizarte erakundeak, larrialdi zerbitzuak, Lehen Mailako arreta zentroak, ikastetxeak

Deskribapena**Komunikazio-kanpainak**

Inguruko eragileentzako bideratze- eta identifikazio-protokoloek gain, ziurtatu behar da herritarrek zuzeneko sarbidea dutela pobrezia energetikoan espezializatutako zerbitzuetara. Beraz, energia-bulegoak bere zereginetan energia-pobreziaren kudeaketa txertatu duenean, zerbitzu hori buruzko informazio-kanpaina bat egitea gomendatzen da.

Hori zabaltzeko, identifikatutako inguruko eragileak ere sar daitezke, administrazio publikoaz gain.

Garrantzitsua da kanal guztiak arakatzea publiko guztietara iristeko: ohiko kanalen bidez (prentsa, telebista eta tokiko irratia, esaterako) bulegoaren sorrera iragartzea, baina baita sare sozialak arakatzea ere, publiko gazteago batengana iristeko.

Sentsibilizazio-kanpainak

Bestalde, kolektibo horiei zuzendutako sentsibilizazio-kanpainak sortzea ere proposatzen da, pobrezia energetikoaren eragina murriztearekin lotutako informazioa eta eskura dauden baliabideak emateko. Adibidez, bonu sozialari buruzko informazio-kanpainak egin daitezke, bai triptikoen bidez, bai tokiko irati edo telebistetako iragarkien bidez, bai herritarrentzako tailerren zikloak sortuz, faktura energetikoen kostuak murrizteko edo etxeko eraginkortasuna eta erosotasuna handitzeko.

Kostua

250 – 400 € tailerreko eta 3.000 – 6.000 € kanpainako

05. **Pobrezia energetikoa koordinatzeko sarea sortzea**

Actores implicados

Gizarte zerbitzuak, Gizarte erakundeak, larrialdi zerbitzuak, Lehen Mailako arreta zentroak, ikastetxeak

Deskribapena

Azkenik, pobrezia energetikoa koordinatzeko sare edo mahai bat sortzea proposatzen da, identifikatu diren eta kasuak identifikatzen eta/edo kudeatzen laguntzeko prest dauden kanpoko eragile guztien artean. Mahai horren helburua proposamenak egitea eta balioztatzea izango litzateke, bai eta ezartzen ari diren bitartean jarraipena egitea eta etengabeko ebaluazioa egitea ere, eskualdean zer zerbitzu eta jarduera lehenetsi behar diren eta erabilgarri dauden baliabideak inbertitu behar diren erabakitzeke mekanismoak emateko, ahalik eta eraginkorrenak izan daitezten.

Koordinazio-sarearen esparruan, interesgarria litzateke energia banatzen duen tokiko enpresarekin harremanetan jartzea, pobrezia energetikoa arintzeko sinerjiak eta lankidetzak aztertzeko.

Kostua

Lotutako aparteko gainkosturik gabe.

06.

Okupazio planak bultzatzea

Aktore liderra

Tolosaldea Garatzen

Inplikaturako eragileak

LANBIDE

Deskribapena

Pobrezia energetikoaren sektorea oso espezializatua da, eta arreta zuzeneko profesional gutxi ditu, arazo hori tratatzen adituak direnak. Horregatik, administrazio publikoek bultzatutako okupazio-planak baliatu nahi dira profesionalak gaitzeko eta arlo horretan aditu bihurtzeko.

Proposamen horrekin batera, lanbide-prestakuntza espezifiko eman behar da, eta energiaren bulegoarekin berarekin lotuta egon behar du. Bulego horretan, energia-kalteberatasuneko egoeran dauden pertsonen arreta emanaz lan profesionalak egin ahal izango dira.

Kostua

15.000 – 30.000€